

BOLA-JOKOA

Aurkezpena

Hemen ditugun piezak (3 bolo eta bola bat) bola-jokoaren parte dira. Alde batetik, arte zurezko bola esferiko bat ikus daiteke. Barrualdean bi zulo ditu, eskua sartzeko. Bata laukizuzena da eta bestea biribila.

Bestalde, arte zurezko hiru bolo zilindriko (birla) ikusten dira, goialdean beherapen bat duena buru esferiko zorrotza nabarmentzeko. Hauek dira bola-jokoan bota beharreko piezak.

Piezaren testuingurua eta historia: jolasa Goierriko bihotzean

Pieza horiek, gaur egun Gordailuarenak direnak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumen Zentroa), 2008an iritsi ziren zentrora, lote batean. Pieza multzo honen historia ia ezezaguna da. Ez dakigu zehazki zenbat urte dituzten, ez nork egin zituen, ezta norenak ziren ere. Zeraindik datozela besterik ez dakigu.

Zerain 258 biztanle dituen herri txiki bat da. Gipuzkoako barnealdean dago. Zehazki, Goierri eskualdean. Bolatokiko tradizioa oso indartsua izan da eta oso garrantzitsua izaten jarraitzen du, inguruko beste herri askotan bezala. Egia esan, bola-jokoaren tradizioa, bere garaian, oso zabaldua zegoen Euskal Herri osoan (Iparraldean zein Hegoaldean), baina herri askotan ohitura hori desagertu egin da. Gabiria, Segura, Legazpi, Zegama edo Zerain bezalako herrietan bolatokiko tradizioak gaur egun arte iraun du.

Pieza horiei esker, baserriak eta bere inguruak bizi izan dituen aldaketak hobeto ulertzeko aukera dugu: despopulazioa, material berrien erabileraren eragina, etab., Aisialdian eta kirolean bizi izan diren aldaketei buruz ere hitz egiteko aukera ematen du. Horrela, Goierriko eta, oro har, Gipuzkoako historian murgiltzen laguntzen digu: pieza horiek Gipuzkoako ondarearen zati direlako.

Bolo-jokoa eta bere agentzia narratzailea baserriaren eraldatze prozesuan.

Bola-jokoa oso zabalduta dagoen jokoa da, eta, era berean, dituen aldaketak askotarikoak dira: distantziaren eta kantitatearen arabera bolak, jaurtiketa-distantzia, joko-arauak, etab.

Gipuzkoan boloetan noizyik jokatzen den zehatz ez jakin arren, badakigu XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran izan zuela goraka handiena. Jokoak izan duen arrakasta ikusteko, datu hauek ikusi besterik ez dago: bolatokiren bat egon den 22 toki identifikatu dira Itsason, eta Zerainen 21.

Bolatokia, boletan jolasten den lekua da, eta jendea biltzen zen tokietan egoten zen. Sagardotegi edo kantinak bezalako lekuetan, adibidez. Zergatik leku hauetan? Izan ere, bola-jokoa oso lotuta zegoen apustuekin. Jokoaren bidez, erronda nork ordaintzen zuen erabakitzen zuten, bostparlau, lauparhiru, lauparbost, etab., bezalako apurtu formulekin. Hauek baliokidetasunak dira; adibidez, lauparbostean, lehen jokalaria lau bota behar zituen eta bigarrenak, bere jokoa parekatzeko, bost birla bota behar zituen.

Zalantzarik gabe, bolatokia sozializazio-espazio oso garrantzitsua izan zen. Baina, batez ere, aisiaren kontzeptuaren garrantzia azpimarratu behar da. Bitxikeria gisa, Aizkorriko magalean ganadua Urbiako belardietara eramaten zuten artzain zaharrak gogoratu nahi ditugu. Bertan biltzen zen jendea, bolatokiko tradizioa oso indartsua zen herrietan bizi zen. Hain zen indartsua, ezen pertsona horiek hainbat bolatoki eraiki baizituzten mendian. Horrela, artaldea zaintzen zuten bitartean denbora pasatzen zuten bola-jokoan.

Denboraren poderioz, artzain kopurua gutxituz joan zen eta geratzen zirenek bolo-jokoari utzi zuten. Urbian zeuden bolatokiak galtzen joan ziren, bolatoki horien aztarna soilak bakarrik geratu ziren arte.

Fenomeno bera gertatu zen herri eta hirietan. Landa-despopulazioak eta XX. mendean bizitako aldaketak kirolaren gainbehera eragin zuten. Sozializatzeko moduak aldatuz joan ziren, eta pixkanaka bolatokiak desagertzen joan ziren. Batzuk moldatu eta oilategi bihurtu ziren, eta beste batzuk etxe eta urbanizazio berrien oinarrien azpian geratu ziren. Bolatoki gehienak landa-eremuan sustrai handiak zituzten herri txikietan iraun zuten. Bolatoki hauek,

eguneroko espazioak izatetik egun berezietan okupatutako gunek izatera pasa ziren, batez ere herriko jaietan.

1986an Gipuzkoako Bola eta Toka Federazioa sortu zen. Federazioaren sorrerak kirolaren homogeneizazioa eta profesionalizazioa ekarri zuen, lehiaketak egiteko kirolak zenbait ezaugarri eta arau izatea eskatzen baita: espazio estali bat, bolen pisu bera eta bolen arteko distantzia bera. Horrela, lehenago herrien artean oso ohikoak ziren eztabaidak saihestu ziren.

Gaur egun, Gipuzkoan 180 pertsona daude federatuta modalitate horretan.

Egurretik nylonera: materialen erabileran aldaketak

Pieza hauei esker, materialen aldaketaz ere hitz egin dezakegu. Pieza hauek zurezkoak dira, zehazki artetzkoak. Gaur egun, ordea, ez da artea erabiltzen, babestuta dagoen zuhaitz autoktonoa da, eta horregatik ez da lehengai gisa erabiltzen. Hain zuzen, duela urtebete artea erabiltzeari utzi zitzaion erabat.

Zurezko pieza hauek zainketa bereziak behar zituzten. Uretan gordetzen ziren, egurra hidratatu eta zatitu ez zedin. Arrakala bat agertuz gero, pieza seboarekin igurtzi ohi zen. Eta bolatokira eramanez aurretik, lehortu egin behar zen pixka bat. Zerainen beti egon da norbait pieza hauek ondo zaintzeaz arduratzen zena. Azkenetariko pertsona Antonio Alustiza izan zen. Eta bere omenez gaur egun Zeraingo bolatokiarenekin izena *Antonio bolalekua* da.

Materialen aldaketa mailakatua izan da, eta herri batzuetan, Zerain kasu, berantiarra. Gaur egun, nylon edo polipropileno bezalako material sintetikoak erabiltzen dira. Hauek beren alde onak eta txarrak dituzte. Pieza bakoitzak behar duen dedikazioa txikiagoa da eta, ekonomikoki, eskuragarriagoak dira. Bestalde, ondarearen zati bat galdu egiten da materialen zaintza alde batera utzita, eta hori ere egungo gizartearen isla da: modernoa eta azkarra.

Honela, baserriaren etengabeko aldaketa zein izan den eta garai berrietara nola egokitu den kontatzen dute pieza hauek, sozializazio modutik hasi eta material berrien erabileraraino. Landa-munduaren eraldaketa, gizarteak eta bere egoera soziokulturalak eskatutako premietara etengabe egokitzen ari den isla besterik ez dela erakutsiz.

Emakumea bolatokian

Kontuan izan behar dugu, aisialdia kulturaren beste elementu bat dela. Eta, beraz, kultura-eta gizarte-aldaketak honen baitan islatzen direla. Gizarte-aldaketek ere ahalbidetu dute emakumeek joko horretan parte hartzea, baina aipatzekoa da pixkanakako prozesua izan dela. Emakumeek bizi izan duten esperientziaz gehiago jakiteko, Zeraingo bola-jokalari bat [elkarrizketatu](#) dugu: Aitziber Makazaga